

2026. URTEAN BIDE-AZPIEGITURETAN BERRIKUNTZA SUSTATZEA

Xedea (1. oinarria)	Foru-errepideen sarea hobetzea eta modernizatzea, teknologia aurreratu berriak modu iraunkorrean eta ingurunean integratuan aplikatu eta probatu daitezzen.
Entitate onuradunak (2. oinarria)	Pertsonalitate juridiko propioa duten enpresek eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteek. Halaber, honako baldintza hauek bete beharko dituzte: - Gutxienez ere ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat izatea Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta, zentro horretan gutxienez 3 langile, lanaldi osoko urteko baliokideetan, izatea. - Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea. - Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan ezarritako egoeraren batean ez egotea. - Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan azaltzen diren inguruabarretako batean ere.
Diruz lagun daitekeen egitatea (3. oinarria)	Bide-azpiegituren arloan berrikuntza-proiektuak egitea; proiektu horiek koherente izan behar dute erakunde eskatzailearen jardura nagusiarekin eta foru-errepideen sarean aplikagarriak izan behar dira. Azpiegiturretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak ezarritako hiru linea nagusietako bati egokitu behar zaizkio eta harekin koherente izan: - ITS aurreratuak - Azpiegitura adimenduna eta digitala - Iraunkortasuna eta ekonomia zirkularra
Laguntzen zenbatekoa (4. oinarria)	Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, diruz lagun daitekeen gastu bakoitzari %70eko laguntza-intentsitatea aplikatuko zaio, barneko langileria-gastuetarako mugak izan ezik. Ez da 6.000 eurotik beherako dirulaguntzarik emango.
Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak (5. oinarria)	Diru-laguntza jaso dezakeen oinarria zenbatzeko orduan, enpresa eskatzaileak aurkeztu duen jardueraren aurrekontuari begiratuko zaio — gastu-kontzeptuen arabera zehaztuta—. Hirugarrenek eginiko lanen zuzeneko gastuak (hornidurak, obrak edo zerbitzuak) diruz laguntzekoak izango, gastu horiek zuzeneko lotura badute proiektuarekin (diruz laguntzekoak ez diren gastuen kasuan izan ezik). Proiektuan diharduen langileria berruko gastuak, proiektuak dirauen bitartean proiektuan emandako lanari dagozkionak Ez dira diruz lagunduko hirugarren batzuek eginiko zuzeneko gastuak, 1.000€ (BEZik gabe) baino gutxiagoko gastuen frogagiriak sortzen dituztenak. Oro bat, ez dira diruz lagunduko zergak eta tasak, zeharkako gastuak, proiektuaren enpresa sustatzaile edo bazkideen arteko fakturazioak eta gastu orokorrak (finantza-arlokoak, legezkoak, administrazio-gastuak, alokairuak, bidaiak, ostatu-gastuak, dietak edo bulegoko kontsumo orokorrak).
Emateko prozedura (9. oinarria)	31/2026 Foru Dekretua, apirilaren 1ekoa (BAO 69 zk. 2026ko apirilaren 15ekoa) Dirulaguntzak norgehiagoka araubidearen arabera esleituiko dira.
Izapideak eta epeak (6. eta 7. oinarriak)	Proiektuak egiteko epea: 2026ko urtarrilaren 1etik eta 2027ko ekainaren 30era hasi eta amaitu beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea: 2026ko maiatzaren 11ko 8:30etik 2026ko uztailaren 3ko 14:00etara; eskabideak Azpiegiturretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztu behar (Azpiegiturretarako eta Lurralde Garapenerako Bulego Birtuala (bizkaia.net)). Horretarako, sinadura elektronikoa eduki beharko da (Izenpe, NAN Elektronikoa, B@k, FEA, B@kQ, ...)